

## LARRIALDIETAN JARDUTEKO ARAUAK

### LARRIALDIEAN ETA SUTEETAN PREBENTZIO-NEURRIAK

- ☑ Ordena eta garbitasuna zaindu.



- ☑ Ez itzazu korrante-harguneak gehiegi berotu hargune berean gailu bat baino gehiago konektatuta. Ez itzazu gaizki manipulatu instalazio elektrikoak. Instalazioetan anomaliaren bat hautematen baduzu, jakinarazi iezaiozu berehala zure arduradunari.

- ☑ Ez itzazu sute-sorguneetatik gertu jarri material erregaiak.
- ☑ Arreta jarri suteak, txinpartak eta abar sortzen duten lanei, aurretik aztertu noiz eta non egingo diren.
- ☑ Bildu produktu sukoiak isolatutako eta aireztatutako barruti batean, lanpostuetatik bereizita, eta beharrezkoa den kantitatea baino ez biltegiratu.



- ☑ Lanegunaren bukaeran ikuskatu lanpostua eta saiatu gailu elektrikorik piztuta ez uzten.
- ☑ Identifikatu suteen aurkako babes-baliabideak eta zona husteko bideak, eta haiek ongi ezagutu.
- ☑ Ez itzazu oztopatu ibilbideak eta ihes-irteerak. Ezta suteen aurkako babeseko baliabideen sarbidea eta ikusgaitasuna ere.

### LESIO PERTSONALAK ERAGIN DITUEN ISTRIPUAREN KASUAN JARRAITUKO DIREN ARAU OROKORRAK

Jakinarazi Larrialdien Arduradunari.

Lasai egon, ez urduritu inor.

Hurrengo ordenari jarraitu:


- ☑ **Babestu:** istripua gertatu den lekua seguru egin. Neurriak hartu orotariko arriskuak deuseztatzeko.
- ☑ **Abisatu** larrialdi-zerbitzuei.
- ☑ **Sorospena:** lagundu zaurituari zerbitzu espezializatuak iristen diren bitartean.



### BONBA-MEHATXUA DAGOENEAN JARRAITUKO DIREN ARAU OROKORRAK

Bomba-mehatxuko dei bat jasotzen baduzu, saiatu horrela jarduten:

- ☑ Lasai egon.
- ☑ Idatzi mezu osoa, eta deia ze ordutan jaso den eta zenbat iraun duen.
- ☑ Saiatu mezua errepikatzea lortzen. Esan entzumen arazoak dituzula edo deian interferentziak daudela.
- ☑ Saiatu ahalik eta datu gehien biltzen: sexua, azentua eta erabili duen hizkuntza, adina, atzeko zaratak, etab.
- ☑ Berehala jakinarazi larrialdien arduradunari.
- ☑ Itxaron jarraibideei.



## LARRIALDIETAN JARDUTEKO ARAUAK

### SUTE KASUAN JARRAITUKO DIREN ARAU OROKORRAK

#### SUTEA HAUTEMATEN BADA:

Larrialdietako arduradunari abisatu, edo sakatu larrialdien sakagailua, halakorik badago, eta jakinarazi sutearen kokapen zehatza eta haren ezaugarriak zein diren.

- ☑ Suteak arriskurik ez badakar eta horretarako gaituta bagaude, erabili hurbileko itzalgailua sutea itzaltzeko.
- ☑ Sutea larria bada eta arriskutsua izan badaiteke, irten erasandako zonatik. Itxi atek eta leihoak irten ondoren.

**Ez ezazu arriskuan jarri zure osotasun fisikoa**

#### SUTEAK HARRAPATZEN BAZAITU:

- ☑ Ke ugari badago, makurtuta ibili eta saiatu ahoan oihal heze bat jartzen; errazago hartu ahalko duzu arnasa eta tenperatura jaitsiko du.
- ☑ Ateak itxita dituen zonaren batetik igaro behar baduzu, lehenengo, atea ukitu eta oso beroa badago, ez ezazu ireki. Bilatu beste irteera bat. Beste aukerarik ez balego, pixkanaka ireki eta inoiz ez aurrez aurre.
- ☑ Arropak su hartzen badizu, ez egin korrika, bota zaitetz lurrera eta hasi biraka lurrean.
- ☑ Lokal batean geratu bazara harrapatuta:
  - ✓ Itxi ate guztiak.
  - ✓ Estali oihalez, bustiak badaude hobeto, kea sar daitekeen zirrikitu guztiak.
  - ✓ Jakinarazi lokalaren barruan zaudela.



### TELEFONO INTERESGARRIAK

LARRIALDIAK	112
LARRIALDI MEDIKOAK	061
SUHILTZAILEAK	080
POLIZIA NAZIONALA	091
UDALTZAINGOA	092
GUARDIA ZIBILA	062
INTOXIKAZIOAK	915 620 420



### GOGORATU EZ ZAITEZ URDURITU, LASAI IBILI UNEORO!

- **Abisatu** sua itzaltzen saiatu aurretik.
- Beharrezkoa baino gehiago **ez arriskatu**.
- **Jarraitu jarraibideei** eta larrialdietako arduradunarekin **kolaboratu**. Hura ez badago, kanpoko laguntza eskatzeko deitu.
- Elkar zaitetz gainerako langileekin **kanpoko topagunean**.



## LARRIALDIETAN JARDUTEKO ARAUAK

### BAKUAZIO KASUAN JARRAITUKO DIREN ARAU OROKORRAK

Ebakuazio alarma entzutean edo larrialdiko eta ebakuazioko ekipoez jakinarazten dizutenean, eraikinetik irteten hasi beharko duzu. Kontuan izan hurrengo gomendioak:

- ☑ Lasai jarraitu eta lantokia ordenatuta utzi, jarraitu ebakuazio-taldearen jarraibideei edo larrialdiko arduradunari.
- ☑ Ez egin korrika instalazioak husteko. Erabili gertuen dagoen irteerara irteteko zehaztuta dauden bideak.
- ☑ Ez zaitetz geratu irteeretan, eta zoaz kanpoko topagunera.
- ☑ Ez itzazu erabili igogailuak. Eskaileretan, bizkor jaitsi baina korrika egin gabe, eta eutsi heldulekuari edo barandari ez irristatzeko.
- ☑ Ez ezazu denborarik galdu zure gauzak jasotzen. Ez egin atzera horiek hartzeko.
- ☑ Zeharkatzen zoazen atea itxi, lanpostua uzten duen azken pertsona bazara.
- ☑ Bisitaren batekin bazaude, lagundu ezazu eraikinaren kanpora.
- ☑ Eraikinak garajea badu, ez zaitetz hara joan autoa ateratzera. Garajeen bazaude, utzi autoa eta zoaz kanpoko topagunera.
- ☑ Ez zaitetz eraikinaren barrura itzuli, inola ere ez, egoera segurua dela ziurtatzen dizuten arte.



### MANEJO DE EXTINTORES PORTÁTILES



#### EXTINTORES DE POLVO

1. QUITAR EL SEGURO



2. ACCIONAR LA PALANCA HACIA ABAJO



3. APRETAR EL MANGO DE LA PISTOLA ORIENTANDO EL CHORRO HACIA LA BASE DE LAS LLAMAS



1. QUITAR EL SEGURO

#### EXTINTORES DE CO<sub>2</sub>

2. SUJETAR EL MANGO CON UNA MANO Y CON LA OTRA APRETAR HACIA ARRIBA, ORIENTANDO EL CHORRO HACIA LA BASE DE LAS LLAMAS

